



HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen
Zuuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados

IKASTETXE PUBLIKOEN PROIEKTUETARAKO 2024-2025EKO DEIALDIA

Gaur egungo gizarte- eta ekonomia-egoeran, globalizazioaren eta munduko oreka berriaren ondorioz, enpresek munduko errealitate geoekonomiko berrira egokitu beharra dute, etorkizuneko estrategiak diseinatzean. «Globalizazio» prozesu horretatik, lehiakortasuna sortzen da, enpresentzako lehentasunezko helburu eta balio gisa. Lehiakortasunean dago enpresen etorkizuna eta, horren ondorioz, enpleguen etorkizuna.

Horrek profil berri bat eskatzen die langileei, hain zuzen, gaitasunen hobekuntza argia egiaztatuko duena, eta ez soilik gaitasun teknikoena, bai eta oinarrizko eta zeharkakoena ere; besteak beste, ekimena, erantzukizuna, konpromisoa, autonomia, talde-lana, analisi-gaitasuna, ezagutzaren transmisioa eta erabakitze gaitasuna.

Lanbide-heziketak enpresen funtsezko aliatua izan behar du profil profesional berri horien garapenean, ikasleen kualifikazioa eta espezializazioa hobetzen lan eginez.

Lanbide-heziketako ikastetxeentzat erronka garrantzitsu bat da bestelako aukera batzuk sortzera eta enplegua piztera bideratzea beren berrikuntza-sistemak. Horretarako, sektore produktiboen –batez ere industriaren– premiei aurre hartzeko gai izan behar dute, produktu berriak, produkzio-prozesu berriak edo suspertzen ari diren sektoreetan jarduera berriak sortzeko aukerak proaktiboki identifikatzeko gai izanez, enpresen lehiakortasuna eta ikasleen enplegarritasuna hobetze aldera.

Helburu horretan aurrera egite aldera, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak ingurune estrategiko batzuk bultzatuko ditu, hots, ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzaren sareak sortzeko bide emango duten gune batzuk, berrikuntza aplikatuaren esparruko proiektuen garapenean aurrera egiteko. Halaber, espezializazio-arloen garapena sustatuko da. Horretarako, ETEei lagunduko zaie suspertzen ari diren sektoreetan eta teknologia aurreratuetan sar daitezen.

Era berean, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2030 Planak argi eta garbi egin du hazkunde jasangarri eta zentzuzkoa sustatzeko estrategia integralaren alde. Estrategiaren oinarrian, kapital intelektual eta ezagutzaren kudeaketa efizientea daude, baita espezializazio eta berrikuntza aplikatua ere, enpresetan balioa sortzeko eta lehiatzeko abantailen iturri gisa eta, ondorioz, enplegua sortzeko iturri gisa.

Lanbide Heziketako Sailburuordetzak 2022ko azaroaren 7an onetsi zuen Lanbide Heziketako 6. Euskal Plana. Plana behar bezala heda dadin bultzatzeko, hau da, Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren eraldaketak gidatzeko tresna izateko, ikastetxe publikoei dei egin die sailburuordetzak, euren irakasleen bitartez ikastetxearen konpetentziak indartuko dituzten jarduera eta proiektuetan parte hartzeko eta teknologia aurreratuko inguruneei erantzuteko. Lanbide Heziketako 6. Euskal Planak giza garapen jasangarriaren, pertsonen talentuaren sustapenaren eta ikaskuntza-eredu aurreratuen aldeko apustua egin du, produkzio-ingurune teknologiko eta digital berri baten erronkei erantzuteko. Euskadiko LHren rola finkatu du, eraldaketa- eta berrikuntza-eragile bihurtu baitu, funtsezkoa delako pertsonen enplegarritasuna nahiz Euskadiko enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta garapen jasangarria sustatzeko.

Era berean, irakaskuntza-gaikuntza digitaleko plan bat behar da, etorkizunerako irakaskuntza-ikaskuntza prozesu berritzaileak eta jasangarriak sustatuko dituen. Horretarako, 2022ko apirilaren 26an onartutako Euskal Hezikuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Plana diseinatu da, eta horrekin esparru digital berri bat sustatu nahi dugu,



HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen
Zuuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados

ikastetxeei laguntzeko digitalizazioa erabili dezaten bai hezkuntza-eraldatzeko eta bai etengabeko hobekuntzarako palanka egiteko. Testuinguru horretan, Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planak (2022-2024) planteatzen du teknologia digitalak hezkuntza-maila guztietan sartzea, horien bidez irakaskuntza- eta ikaskuntza-praktikak hobetzeko eta dibertsifikatzeko, eta konpetentzia digitalak garatzeko.

Ondorioz, ikastetxeei dei egingo diegu honen bidez, lanbide-heziketako ikastetxeetan 2024-2025 ikasturtean garatuko diren berrikuntza-proiektuen ideiak aurkez ditzaten. Zehazki, lanbide-heziketaren prestakuntza-eskaintza produkzio-sistemaren beharretara egokitzera bideratutako proiektuak, ezagutza horiek ikasleei eta Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako gainerako ikastetxeei transferitzeko. Sailburuordetzak proiektu horiek ebaluatu eta hautatuko ditu eta, hala badagokio, laguntza eskainiko die.

IKASTETXE PUBLIKOEN DEIALDIAREN BALDINTZAK

1.- Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren mende dauden Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako ikastetxe publiko guztiek aurkeztu ditzakete proiektuen ideiak.

2.- Deialdi honetako dirulaguntzak jaso ditzaketen proiektuek honako eremu hauetako batekoak izan behar dute:

a) Digitalizazioa: berrikuntza teknologikoaren eta sistema adimendunen eremua.

Eremu honetan sailkatzen dira garapen teknologikoak (digitalizazioa) egiteko helburu orokorra duten proiektuak izan behar dute, hala nola:

1. Fabrikazio aurreratua. Prozesuen digitalizazioarekin eta horien simulazioarekin lotuta daudenak. Neurketa-elementuak jasotzen dira, bereziki prozesuko neurketak. Material berriak sartzea. Fabrikazio-prozesu berriak, hala nola fabrikazio aditiboa, diseinutik hasita fabrikaziora eta post-tratamendura arte.
2. Fabrika digital eta konektatua. Zuzenean erlazionatuta dago digitalizazioarekin eta honako hauei lotutako teknologien eta metodoen aplikazioarekin: IoT/IloT (Gauzen Internet / IoT Industrial), IoM (Makinen Internet), Big Data eta Adimen Artifiziala. Helburua da industria-ekipamendu eta -instalazioetan sortutako informazioaren konexioa, monitorizazioa, trazabilitatea, kudeaketa eta/edo tratamendua bideratzea, eta, horretarako, sensorizazioa, konektibitatea, zibersegurtasuna, bloke-katea eta adimen artifizialeko datu-tratamendua eta -ustiaketa erabiltzen dira.
3. Efizientzia energetikoa eta energia garbiak sortzea. Energia eolikoa, olatuena eta beste batzuk sortzea, eta energia garbiagoak sortzera bideratutako garapen teknologikoak eta sare adimendunen digitalizazioa.
4. Mugikortasun jasangarria. Mugikortasun adimendun eta jasangarria, Euskadin mugikortasun elektrikoaren ezarpena sustatzeko, bai gizartean duen erabileraren ikuspegitik, bai beharrezko teknologien garapen industrialaren ikuspegitik.
5. Ingurune birtualak. Errealitate birtual, areagotu eta mistoko tresnak erabiltzearekin lotuta daudenak, ikaskuntza-prozesuan eta enpresetara bideratutako zerbitzu- eta



HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza
Tecnologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen
Zuuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados

ezagutza-sortzaile gisa. Ikastetxeetako eta ETE-etako prozesuak digitalizatzeko bitarteko gisa.

6. Honako konponbide aurreratu hauekin lotutako gainerako proiektu disruptiboak: bideokonferentzia, idazmahaiaren birtualizazioa, euskarri-plataformak, ERPak ezartzea, 5G, blockchain, errealitate birtual, areagotu eta mistoa, konektagarritasun-eta komunikazio-konponbideak (5G / WIFI6), datuak bildu eta ustiatzea (Smart DATA, BIG DATA, AA), biosentsorika eta konputazio kuantikoa.

b) Jasangarritasuna: biozientzien eta jasangarritasunaren eremua.

Eremu honetan sailkatzen dira jasangarritasunarekin, energia-efizientziarekin, energia garbiak sortzearekin, eraikuntza jasangarriarekin eta bioteknologiarekin zerikusia duten proiektuak izan behar dira, hala nola:

1. Garapen jasangarria. Jasangarritasunarekin zerikusia duten balio-kateen digitalizazioan oinarritua, ekonomia zirkularrarekin eta bioekonomiarekin zerikusia duten alderdiak baloratuz, hainbat alorretara begira: nekazaritza, itsasoa eta arrantza, ostalaritza eta turismoa, elikagaien industriak, administrazioa eta kudeaketa, zura eta altzarigintza, eraikuntza eta obra zibila eta abar.
2. Efizientzia energetikoa. Honako hauetara bideratutako proiektuak: prozesuen ingurumen-aztarna hobetzea, produktuen bizi-zikloaren analisia, ekonomia zirkularra garatzea, ekodiseinua eta jasangarritasuna, efizientzia energetikoaren ikuspegitik (prozesu industrialetako, bizitegi-sektoreko eta sare adimendunen kudeaketako aplikazioa).
3. 4.0 osasuna eta zahartze osasuntsua. Osasunaren, robotika aplikatuaren eta teknologia humanizatuaren eremuko digitalizazioarekin lotutakoak, bai eta pertsonen zaintzari eta ongizateari aplikatutako baliabide teknologiko berriekekin lotutakoak ere.
4. Biozientziak eta bioteknologiak. Osasunarekin, nekazaritzako elikadurarekin eta bioteknologia industrialarekin lotutako konponbideen praktikarekin lotutakoak. Digitalizazio-tresnak ezarriz, lehiakortasun handiagoa lortzeko bitarteko gisa.
5. Etxebizitza adimendunarekin, 4.0 nekazaritzako elikadurarekin, jatetxe jasangarriekin eta ekonomia zirkularrarekin lotutako gainerako proiektu disruptiboak.

3.- Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak jaso ahal izateko, proiektuek bat etorri beharko dute Lanbide Heziketako 6. Euskal Planean eta Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planean zehaztutako espezializazio adimendunaren estrategiarekin. Lotura hori ebidentzien bidez frogatu beharko dute eskatzaileek, I. eranskineko Proiektuaren fitxaren bidez, hori izango baita hautaketa-irizpideetako bat.

4.- Bikoiztasunak saihesteko, ez dira diruz lagunduko Lanbide Heziketako Sailburuordetzak beste programa edo deialdi batzuen bitartez lantzen dituen proiektuak. Lanbide-heziketan beste programa edo deialdi baten bitartez dagoeneko lantzen ari den proiektu bat aurkezten bada, erabakiko da proposamen hori ez dela deialdiaren xedera egokitzen, eta horixe adieraziko da proposamenaren balioespenean.

Hauek dira Lanbide Heziketako 6. Euskal Planean jasota dauden eta beste programa batzuen bidez lantzen diren eremuak (beraz, deialdi honetan ezin izango dute dirulaguntzarik jaso):



HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados

- Heziketa integratuaren eremua; helburuak: egokitzapena eta espezializazioa, berrikuntza pedagogikoa eta bikaintasuna, eta kalitatea.
- Ekintzailtza aktiboaren eremua; helburua: jarduera ekintzailea indartzea.
- Nazioartekotzearen eremua; helburua: lanbide-heziketa nazioartean zabaltzea.
- Lanbide-heziketako ikastetxeen eremua; helburuak: ikastetxe-eredu berriak, ikastetxeak ezagutza-unitate gisa, eta lanbide-heziketako ikastetxe espezializatuen sarea.

5.- Lanbide-heziketan beste programa edo deialdi baten bitartez dagoeneko lantzen ari den proiektu bat aurkezten bada, baina aurreko planteamendua osatzen duen alderdi berriren bat hartzen badu barnean, proposatuko da proiektu hori dagoeneko garatzen ari den ekimenaren barnean sartzea.

6.- Irakasleek proiektuei eskaintzen dieten dedikazioa finantzatu egingo da. Ikastetxeak bere gain hartu beharko du proiektuaren garapenean erabilitako gainerako baliabideen kostua, baliabide propioen bidez edo enpresarekin lankidetzan.

7.- Proiektuak eta ematen zaien zuzkidura aldaketa hauekin onartu ahal izango dira, balioespenerako oharretatik hala egin behar dela ondorioztatzen bada:

- a) Eskatutako baliabideen doikuntza batekin, "*proposatutako baliabideen eta helburuen arteko koherentzia*" irizpideak ez badu lortzen 10 puntutik gutxienez 5 puntuko balioespena.
- b) Antzeko helburuak edo helburu komunak dituzten proiektuak hainbat ikastetxek elkarrekin garatzeko proposamenarekin.
- c) Lanbide Heziketako Sailburuordetzak TKNIKA zentroaren zuzendaritzapean garatzen dituen proiektu eta zerbitzuen zorroan sartuz proiektua, espezializazio-arlo batean, gaiak hala gomendatzen badu.

8.- Diruz lagundutako jarduera 2024ko irailean hasi eta ikasturte akademikoa amaitzean bukatuko da, 2025eko uztailean.

9.- Proiektuak esan bezala ordenatu ostean, eta hala ezarritako lehentasunari jarraituz, dagokion dirulaguntza esleitzeari ekingo zaio. Horretarako, ezarritako balioespen-irizpideak aplikatuko dira, deialdiaren zuzkidura agortu arte. Dirulaguntza modu diferentean eta independentean banatuko da proiektuak sailkatzen diren bi eremuetako bakoitzean, honela: aurrekontuaren % 60 Digitalizaziora bideratuko da (Berrikuntza Teknologikoaren eta Sistema Adimendunen eremua), eta % 40 Jasangarritasunera (Biozientzien eta Jasangarritasunaren eremua).

Eremu batera bideratutako zuzkidura agortzen ez bada, balioespen onena izan duten proiektuetara bideratuko da, zeinahi dela ere haien eremua, eta betiere deialdian ezarritako gainerako eskakizunak betetzen badituzte.

10.- Proiektuak aztertzeko eta balioesteko, Balioespen Batzorde bat osatuko da. Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuaren zuzendaria izango da batzordeburua, TKNIKA Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroaren berrikuntza aplikatuaren arloko zuzendaria eta Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuaren Zuzendaritzako teknikari bat izango dira batzordekideak, eta azken hori izango da idazkaria (hitz egiteko eskubidea izango du, baina botoa emateko eskubiderik ez).



HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen
Zuuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados

11.- Balioespen Batzordeak ezarrita dauden irizpideen arabera balioetsiko ditu proiektuak, eta Lanbide Heziketako sailburuordeari proiektuen proposamen bat aurkeztuko dio, onar ditzan, eskuragarri dauden baliabideen arabera.

IKASTETXE PUBLIKOEN PROIEKTU-PROPOSAMENA AURKEZTEA

1.- Proiektu-proposamenak I. eranskineko (Proiektuaren fitxa) ereduaren arabera aurkeztu beharko dira.

2.- Bi ikastetxek edo gehiagok proiektu bera elkarrekin aurkeztu ahal izango dute, elkarrekin garatzeko proposamena eginez. Kasu horretan:

- Proiektuan parte hartzen duten ikastetxe guztiak publikoak badira, eskabide bakarra aurkeztu beharko dute elkarrekin.
- Proiektuko parte-hartzaileen artean ikastetxe publikoak eta itunpekoak badaude, bi eskabide aurkeztu beharko dituzte elkarrekin, bat ikastetxe publikoentzako deialdian eta bestea itunpeko ikastetxeentzako deialdian.

Kontuan hartu behar da eskaera egiteko erabili behar den Proiektuaren Fitxa ez dela zehazki berdina bi deialdietarako. Eskabide bakoitza dagokion deialdiaren formatu espezifikoan aurkeztu beharko da.

3.- Eskabideak formatu digitalean aurkeztuko dira, I. eranskineko Proiektuaren fitxako artxiboa osorik bete eta pdf formatuan igoz Herri-ikastetxeak atariaren bidez, helbide honetan: <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/fp-proiektuak-2024>

4.- Ikastetxe publikoetako proiektuak aurkezteko epea **apirilaren 19an hasi eta maiatzaren 8an amaituko da**, biak barne.

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK

Aurkeztutako proiektuak irizpide hauek kontuan hartuta balioetsiko dira:

1.- Proiektua bat dator deialdiaren xedearekin. Bai ala ez. Baztertzaila. Atal honetan deialdiaren baldintzetako bigarren puntua hartuko da kontuan.

2.- Proiektuen balioespena irizpide hauen arabera egingo da. Irizpide bakoitzeko puntuazioak 1etik 10era bitarteko eskala batean adieraziko dira, dezimalik gabe: puntuaziorik txikienari 1 dagokio, eta, handienari, 10. Proiektu bakoitzaren azken balioespena irizpideotako bakoitzean lortutako puntuazioen batuketa haztatuaren bitartez lortuko da:

a) Aurkeztutako berrikuntza aplikatuko proiektuak bat etorri behar du deialdiko eremuetako batekin, deialdiaren baldintzen 2. puntuari adierazitakoari jarraituz. Hala egiten ez badu, hautaketatik kanpo geratuko da.

b) Bikoiztasunak saihesteko, baldin eta Lanbide Heziketako Sailburuordetza beste



HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratu
Zuuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados

programa edo deialdi baten bidez lantzen ari bada proiektuaren xedea, proiektu hori deialdi honetako xedearekin bat ez datorrela joko da.

c) Deialdiaren xedea Euskadiko Lanbide Heziketaren eremuan kokatzen da, zeinak, berrikuntza-proiektuak garatuta, sostengua emango baitio euskal gizarteari, eta Euskal Autonomia Erkidegoko industriak eraldaketa-prozesu honetan dituen enpresa-beharrei erantzungo baitie. Beraz, proiektuen ustiapen-eremuak, transferentziak eta aplikazioak, baita bazkideei dagokienez ere, Euskal Autonomia Erkidegoa izan behar dute ardatz. Baldintza hori betetzea nahitaezkoa da, eta, betetzen ez bada, proiektua deialdiaren xedearekin bat ez datorrela joko da, eta ez da balioetsiko.

d) Proiektuak berrikuntza ekarri behar du berekin; hau da, Euskadiko LHn ezagutza berriak garatu eta txertatu behar ditu. Hala ez badu egiten, hautaketatik kanpo geratuko da

Betekizun horiez gain, alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Ikusten bada proiektu batzuk osagarriak direla edo antzeko helburuak dituztela, proiektuak batzea proposatuko da, proiektu bakar batean garatzeko. Hala gertatzen denean, baliabideak eta helburuak proiektu bakar bati dagozkionetara egokituko dira.
- Balioespen-irizpideetako 3. puntuko g) letran adierazitako "Beharrezko baliabideen eta proposatutako helburuen arteko koherentzia" irizpidean gutxienez 5 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ere onar daitezke, baina eskatutako baliabideak gutxituz.

3.- Deialdiaren xede diren proiektuak emateko prozedura norgehiagokakoa izango da, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluan xedatutakoaren arabera; hau da, aurkeztutako eskabideak konparatuko dira, jarraian zehazten diren balorazio-irizpideen arabera lehentasun-hurrenkera ezartzeko helburuarekin, erabilgarri dagoen kreditu kontuan hartuta, irizpide horiek aplikatuz balorazio handiena lortu dutenei esleitzeko.

Proiektuak irizpide hauei jarraituz balioetsiko dira, dagozkion haztapenak eginda:

a) Aurreproiektuak egokia dela justifikatzen du, eta oinarri sendoak ditu. azken balioespenaren % 10.

Otik 10era balioetsiko dira proiektuak, errubrika hauei jarraituz (balioespen totala justifikatutako errubriken batura izango da):

- Proiektua egokia dela berariaz identifikatuta dago, eta egokitasun hori egiaztatzen duten joera, azterlan, txosten edo araukin lotuta dago. Gehienez ere 2 puntu.
- Proiektua egokia dela berariaz identifikatuta dago, eta egokitasun hori lotuta dago deialdiaren baldintzei buruzko 3. puntuan adierazitako erreferentzia estrategikoetako lehentasunezko ildo batekin, gutxienez. Gehienez ere 2 puntu.
- Proiektua egokia dela berariaz identifikatuta dago, eta egokitasun hori lotuta dago SAREko nodoetan lehenetsitako ildo batekin, gutxienez. Gehienez ere 2 puntu.



HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratu
Zuuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados

- Proiektuaren gai nagusiak zerikusi zuzena du deialdiaren baldintzetako 3. puntuan deskribatutako lehentasunekin. Gehienez ere 2 puntu.

- Apartatu honen erredakzioa koherentea da, eta apartatu honek lotura du proiektuaren helburu orokorren deskribapenarekin. Gehienez ere 2 puntu.

b) Aurreproiektuak bere emaitzak erabil ditzaketen enpresak aurkeztu ditu, eta, gainera, enpresa horien babesa dauka: azken balioespenaren % 10.

Otik 10era balioetsiko dira proiektuak, errubrika hauei jarraituz (balorazio totala proiektuaren aurkezpenean egiaztatutako errubriken batura izango da):

- Ikastetxeen arteko lankidetzan gauzatzen da proiektua. Gehienez ere 2 puntu.

- Proiektuaren emaitzetan interesa duten enpresen ebidentziak aurkeztu dira. Gehienez ere 2 puntu.

- Aurkeztutako ebidentziek frogatzen dute zenbait enpresek lagundu dutela proiektua garatzen. Gehienez ere 2 puntu.

- Aurkeztutako ebidentziek frogatzen dute zenbait enpresek materiala edo instalazioak eman dituztela proiektua garatzeko. Gehienez ere 2 puntu.

- Aurkeztutako ebidentziek frogatzen dute zenbait enpresa proiektuan bazkide direla. Gehienez ere 2 puntu.

c) Aurreproiektuak irismen eta eskalagarritasun zabala ditu: azken balioespenaren % 20.

Otik 10era balioetsiko dira proiektuak, errubrika hauei jarraituz (balioespen totala justifikatutako errubriken batura izango da):

- Irismena: hartzaile objektibo potentzialak, proiektuaren emaitzak inplementatu ditzaketenak. Gehienez ere 3 puntu.

- Eskalagarritasuna: zer baliabide behar diren proiektuaren erabilgarritasuna edo balioa zabaltzeko, mantentzeko eta, are, hobetzeko, hartzaile kopurua handitu ahala. Gehienez ere 2 puntu.

- LHko ikastetxeen sarean izango duen eragina. Proiektuaren plangintzan sartutako LHko interes-taldee zuzendutako transferentzia eta hedapena. Gehienez ere 5 puntu.

d) Proposatutako helburuen koherentzia eta anbizioa: azken balioespenaren % 10.

Otik 10era balioetsiko dira proiektuak, errubrika hauei jarraituz (balioespen totala justifikatutako errubriken batura izango da):

- Helburu orokorrak: LHn eragina sortzera bideratua egotea. Helburu orokorrak egokitu eta deskribatzea. Gehienez ere 2 puntu.

- Helburu espezifikoak: helburu espezifikoak egokitu, definitu eta xehatzea. Gehienez ere 6 puntu.

- Helburuen adierazleak eta jomugak: helburuetarako definitutako adierazleen eta jomugen xehetasunak. Gehienez ere 2 puntu.



HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen
Zuuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados

e) Proiektuaren faktore berritzailea: Azken balioespenaren % 20.

Otik 10era bitartean balioetsiko dira proiektuak, haien helburura ondoen egokitzen den errubrika hautatuz:

- Proiektuaren helburua dagoeneko zabaldua dago Euskal Autonomia Erkidegoko LHn. Ebaluatzaileak gutxienez 5 ikastetxeren ebidentziak ditu. Kasu horretan, ez litzateke proiektua balioetsi behar, ez baitu betetzen deialdiaren helburua.

- Proiektuaren helburua ezaguna da, hari buruzko erreferentziak daude edo LHn hein batean aplikatzen da. Gehienez ere 4 puntu.

- Proiektuaren helburua ezaguna da, hari buruzko erreferentziak daude edo hein batean aplikatzen da enpresa-ingurunean, baina ez LHn. Gehienez ere 8 puntu.

- Proiektuaren helburua koherentea da, baina ez dago erreferentzia hurbilik, enpresetan aplikatu dela dioenik; hortaz, LH enpresa-sarearen bultzatzaile izango litzateke. 10 puntu.

f) Proiektuaren plangintza-maila: azken balioespenaren % 10.

Otik 10era balioetsiko dira proiektuak, errubrika hauei jarraituz (balioespen totala justifikatutako errubriken batura izango da):

- Deialdi honen xede den ikasturterako aurkeztutako plangintzak bermatzen du aurreikusitako helburuak betetzea. Gehienez ere 2 puntu.

- Deialdi honen xede den ikasturterako aurkeztutako plangintza zehatza eta koherentea da. Gehienez ere 3 puntu.

- Deialdi honen xede den ikasturterako aurkeztutako plangintza zorrotza da, baina, aldi berean, egingarria. Gehienez ere 2 puntu.

- Deialdi honen xede den ikasturterako aurkeztutako plangintzak dauden arriskuak identifikatzen ditu, bai eta, haiek gauzatzen badira, egin beharreko ekintzak ere. Gehienez ere 3 puntu.

g) Beharrezko baliabideen eta proposatutako helburuen arteko koherentzia: azken balioespenaren % 15.

Otik 10era balioetsiko dira proiektuak, errubrika hauei jarraituz (balioespen totala justifikatutako errubriken batura izango da):

- Eskatutako giza baliabideen eta ezarritako helburu espezifikoaren arteko optimizazioa balioesten da. Gehienez ere 2 puntu.

- Behar diren giza baliabideen eta helburu orokorren arteko optimizazioa balioesten da (espero izandako inpaktua). Gehienez ere 2 puntu.

- Behar diren giza baliabideen eta proiektuaren irismenaren eta eskalagarritasunaren arteko optimizazioa balioesten da. Gehienez ere 2 puntu.

- Ikastetxearen konpromisoa emandako baliabide materialekin eta proiektua egikaritzeko egin beharreko inbertsioekin lotuta. Gehienez ere 4 puntu.



HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratu
Zuuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados

h) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko irizpideak: azken balorazioaren % 5

Otik 10era bitarteko balorazioa egiten da hurrengo errubrikak kontuan hartuta, eta kalkulua errubrika horien baturaren arabera izango da:

- Proiektuak garapen jasagarriaren 5. helburuari ("Genero-berdintasuna") laguntzen dio, eta hala adierazten da eskabide-orrian (I. eranskina). 3 puntu.
- Proiektua garatzen duen pertsonak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako gutxienez 5 orduko ikastaroa du (justifikazio-dokumentua eskatzen da). 3 puntu.
- Ikastetxeak Berdintasun Plan bat du indarrean (gutxienez azken 4 urteetan eguneratutako planak hartuko dira indartzat). 2 puntu.
- Ikastetxeak eta proiektua garatuko duen pertsonak bermatuko dute hizkuntza inklusiboa erabiliko dela proiektua garatzearekin batera sor daitezkeen prestakuntza-eta/edo dibulgazio-materialetan. Baita komunikazioan ere. 2 puntu.

Dirulaguntza eskuratzeko, gutxienez gehieneko balioespenaren % 50 lortu behar dute proiektuek.

JARDUERA GARATZEKO BALDINTZAK

1.- TKNIKA Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroak proiektuen jardueren jarraipena koordinatuko du, onartutako proiektu bakoitzerako jarraipenaz arduratuko den pertsona bat esleituz.

2.- TKNIKAK proiektu horien jarraipenak eta ikastetxe batek baino gehiagok parte hartzen duen proiektuetako lana koordinatu ahal izateko, irakastordurik gabeko egunen lehentasun-ordena honako hau izango da: osteguna, asteartea, asteazkena, ostirala eta astelehena.

Proiektuan dedikazio partziala duten pertsonen kasuan:

- Lanaldiaren bostena dutenek osteguna izan beharko dute irakastordurik gabe,
- Lanaldiaren bi bosten dituztenek osteguna eta asteartea izan beharko dituzte,
- Lanaldiaren hiru bosten dituztenek osteguna, asteartea eta asteazkena izan beharko dituzte,

Eta horrela hurrenez hurren, dedikazio osoa dutenetara iritsi arte; horiek asteko bost egunak izango dituzte irakastordurik gabe.

Rikardo Lamadrid Intxaurreaga

TEKNOLOGIAREN ETA IKASKUNTZA AURRERATUEN ZUZENDARIA